# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 18. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 18

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2021ko abenduaren 9a**<br>Udalbatza<br>**18:00etan** |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:20ean** |

**GAI ZERRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1. Aurreko akta onartzea (10 minutu) | 1. Aprobación de acta anterior (10 minutos) |
| 2. 2022ko Ingurumen Aurrekontuak (20 minutu) | 2. Presupuestos Medio Ambiente (20 minutos) |
| 3. Udaleko barne klima ladaketaren aurkako plan (20 mintu) | 3. Plan interno contra el cambio climático. (20 minutos) |
| 4. Norberak lekarkeena (15 minutu) | 4. Ruegos y preguntas (15 minutos) |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | Ekologiako, Osasun Publikoko, Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria ( Marisol Garmendia) |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | m<br>Elkarrekin Donostia (Loic Alejandro)<br>PP (Borja Corominas) |
| KONTSEILUKO KIDEAK<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala /COAVN (Victoria Iglesias)<br>2. DONOSTIA BIZIRIK (Juanma Galatas) |

| | |
|---|---|
| | |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | EH BILDU (Garbiñe Alkiza)<br>ARANZADI ( Jon Etxezarreta)<br>SEO BIRDLIFE ( Jose Manuel Cabrita)<br>HARITZALDE (Xabier Rubio) |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | A<br>Ingurumeneko eta Osasun publikoko zuzendaria (Josu Benaito)<br><br>Partaidetza (Amaia Agirreolea) |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Emakumezkoak /** Mujeres = **3**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **5** |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | Osasuneko eta Ingurumeneko lege-teknikaria / Técnico Jurídico de Salud y Medio Ambiente (Igor Rodríguez)<br>ingurumena@donostia.eus |

## Saioaren bilakaera:

## Desarrollo de la sesión:

Kontseiluko kideak 16 dira, eta, ordu laurden itxaron ondoren, sei etorri dira (ez dira kontuan hartzen Ingurumeneko zuzendaria eta Amaia Agirreolea Partaidetzako zuzendaria); beraz, Araudiaren 20. artikuluaren arabera, osoko bilkura balioz eratuta geratu da, kideen herena bildu denez gero.

Cabe decir que siendo 16 los/las miembros del Consejo, tras esperar un cuarto de hora se presentan 6 (no cuentan el Director de Medio Ambiente ni Amaia Agirreolea de Participación) por lo que en virtud del artículo 20 del Reglamento queda constituido válidamente el pleno al cumplir con un tercio del total de miembros.

### 1. Aurreko bileraren akta onestea

ELKARREKIN DONOSTIAren ordezkariak klima-aldaketaren ibilbide-orria eskatu du, eta Ingurumeneko zuzendariak esan dio postaz bidaliko diotela. Hori esanda, aurreko akta onetsi dute.

### 1. Aprobación del acta anterior

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA solicita la hoja de ruta del cambio climático y el Director de Medio Ambiente le dice que se le mandará por correo. Dicho esto se aprueba el acta anterior.

## 2. Ingurumeneko aurrekontuak

Osasuneko eta Ingurumeneko zuzendariak aurrekontuak aurkeztu ditu.

ELKARREKIN DONOSTIAren ordezkariak adierazi du energia-kontsumoa zenbat murriztu den jakin nahi duela, eta hirigintza-plan orokorretan biodibertsitatea kontuan hartzeko eskatu du.

DONOSTIA BIZIRIKen ordezkariak argi-kutsadura geldiarazteko eskatu du.

## 2. Presupuestos Medio Ambiente

El Director de Salud y Medio Ambiente presenta los presupuestos.

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA solicita saber cuál es la reducción del consumo energético, asimismo pide que se tenga en cuenta la Biodiversidad en los planes generales de Urbanismo.

El representante de DONOSTIA BIZIRIK solicita que se ponga freno a la Contaminación lumínica.

## 3. Klima-aldaketaren barne-plana.

Osasuneko eta Ingurumeneko zuzendariak plana aurkeztu eta Kontseiluko kide guztiei bidaliko diela esan du.

DONOSTIA BIZIRIKen ordezkaria kexu da udal-instalazioetako tenperaturagatik; era berean, adierazi du Donostian leku askotan jende gutxi igarotzen dela eta, hala ere, beti daudela argiztatuta.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren ordezkariak uste du egokia dela udal-langileei mugikortasun-ohiturei buruz egindako inkesta, baina pena dela herenak bakarrik erantzun izana (2.000 langiletik 700).

PPren ordezkariak bizikletetarako azpiegituretan inbertsio handiagoa egiteko eskatu du.

ELKARREKIN DONOSTIAren ordezkariak inausketen hondakinei buruz galdetu du.

Zuzendariak erantzun du hondakin horiekin konposta egiten dela eta, tenperaturari dagokionez, esan du udal-langile guztiei bidali zaizkiela horri buruzko gomendioak.

## 3. Plan interno contra el cambio climático.

El Director de Salud y Medio Ambiente presenta el plan y dice que lo enviará a todos los miembros del Consejo.

El representante de DONOSTIA BIZIRIK se queja por la temperatura en instalaciones municipales, asimismo indica que existen muchos lugares en Donostia por los que pasa muy poca gente y sin embargo están constantemente iluminados.

La representante del COAVN ve acertada la encuesta efectuada a los trabajadores del Ayuntamiento sobre los hábitos en la movilidad, una pena que hayan respondido un tercio tan solo (700 de 2.000 trabajadores).

El representante del PP solicita una mayor inversión en infraestructuras para la bicicleta.

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA pregunta por los residuos de las podas.

El Director responde que se elabora compost con dichos residuos y respecto a las temperaturas dice que si han sido enviadas a todo el personal del Ayto las recomendaciones sobre las mismas.

## 4. Galderak eta eskaerak

DONOSTIA BIZIRIKen ordezkariak esan du ez duela aurrerapenik ikusten gaikako bilketan, eta gaineratu du turismoarekin lotutako enpresak direla gutxien inplikatuta daudenak. Janari asko alferrik galtzen jarraitzen da.

ELKARREKIN DONOSTIAren ordezkariak klima-aldaketaren ibilbide-orria gehiago zehazteko eskatu du: etapak, datak…

## 4. Ruegos y preguntas

El representante de DONOSTIA BIZIRIK dice que no ve avances en la recogida selectiva y añade que las empresas relacionadas con el turismo son las menos implicadas. Se sigue desperdiciando mucha comida.

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA pide mayor concreción en la hoja de ruta del cambio climático: etapas, fechas…

Kontseiluko lehendakariari eskatu dio zuhaitz-plana gainerako atalei helarazteko.

Solicita al Presidente del Consejo dar traslado del plan de arbolado al resto de departamentos.

Gogoan izan klima-larrialdian gaudela, eta ez gaudela hainbeste turista erakartzeko. Belarratza eta Antondegi naturaguneak errespetatu beharko lirateke.

Recuerda que nos encontramos en emergencia climática y “no estamos para atraer a tanto turista”. Se debieran respetar los espacios naturales de Belartza y Antondegi.

**Bilkura 19:15ean amaitu da.**

**Finaliza la sesión a las 19:15 horas**.